



## Kutxa didaktikoa Haurtzaroa

*Haurtzaroa* izeneko kutxak haurrek aisialdian, etxeko lan jakin zehatz batzuetan laguntzaile gisa eta ofizio bateko ikasle gisa erabilitako objektuak biltzen ditu.

### Igel-jokoa eta fitxak

Adin guztietarako jokoa, zeinean burdinazko fitxak (txanpon modukoak) distantzia batetik jaurtitzen diren, igelaren ahoan sartzeko helburuarekin.





## Jostailuzko sukaldea

Kartoiz eta zur polikromatuaz egindako sukaldetxea. 1930-1940 urte bitartean datatutako jostailua. Ikatzezko sukaldea, ikaztegia eta esekitako andela duen harraska dauka.

## Tortolos jolasa

Animalien artikulazioetako hezurrekin (ardia, ahuntza edo arkumea) egindako tortolos-jokoa.



## Lata potea eta trikimakoa

*Bote-bote* jokoa. Ezkutaketa-jokoaren aldaera batera jolasteko berrerabilitako kontserba-lata.

Trikimakoan aritzeko soka bat dauka.



## Eskolako su-ontzia

Goialdean zulatutako latorrizko su-ontzia, non txingarrak sartzen ziren. Zurezko heldulekuari esker eskolara eramaten zen. Idazmahaiaren azpian jartzen zen eta umeak oinak gainean ipintzen zituen.



## Aneka edo zakutoa

Lihozko oihal gorrixkaz eskuz egindako bi poltsiko dituen poltsa, brodatua eta hari urdinez errematatua.

Haurrak zelaira joaten zirenean azienda larratzera, hainbat tresna eramateko balio zuen.

## Bastidorea eta abezedarioarekin brodaturiko oihala

- Pago-zurezko pieza, euskarri artikulatu batez osatua, aro bati eusten dioten tximeleta banarekin. Aro hori ireki eta ixten da tximeleta kiribildu baten bidez, bere barruan beste aro itxi bat estutzen duelarik. Bien artean brodatu behar den oihal zatia eusten eta tenkatzen da.

- Abezedarioa hari gorritz brodaturiko oihala. Neskek eskolan egiten zuten ariketa bat da. Honako hau irakur daiteke:

«Lo hizo Esperanza Andueza a la edad de 9 años. 1906».







### Meza-mutilaren txilina

4 txilinez osatutako instrumentua, mezetan meza-mutilak liturgiaren jarraibideak markatzeko edo ekitaldi erlijiosoei buruz bizilagunei abisatzeko balio duena.

### Arrautza-ontzia

Burdin-hari txirikordatutako ontzia, eskortako arrautzak biltzeko eta puskatu gabe garraiatzeko balio duena.



### Zakua

Oihalezko zakua, solidoak gorde eta garraiatzeko, hala nola, zerealak, irina, gatza, etab. Landa-lanetan eta etxeko elikagaien kontserbazioan laguntzen zuen.